

V. DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK

Gasteiz, 1985, Urtarrilak 25-26

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hasiera-hitzak

Adiskideak:

Nik bezin ongi dakizue Euskal Herriko Atlas honen asmoa, asmo guztiz zaharra dela, zaharraren zaharraz zahar okitua kasik, baina orain arte, laguntzarik eta aukerarik izan ez delako, burutu gabe dagoena.

Orain badirudi Eusko Jaurlaritzak eskeinitako laguntzarekin lehenbiziko aldiz izango dugula lan haundi honi buru emateko parada. Hortaz, Euskaltzaindia konprometua dago buru-belarri arazo honetan.

Egia da, lehenago ere, bakoitzak bere erara eta bere garaiko premia, baliabide eta ikuspuntuaren arabera, Bonaparte Printzeak lehenik, eta Azkuek gero, burutu zituztela euskararen Atlas edo zerbait holako dei daitezkeen lanak. Azkueren aginduz egin zenak *Erizkizundi Irukoitza* du izena eta Ana Mari Etxaideren ardurari eta Bizkaiko Diputazioaren laguntzari esker, argitaraberri du Euskaltzaindiak.

Lan horiek beren garairako onak ziren eta orain ere mesede egin diezagukete, noski; baina ez dira aski. Gaurko erizpideekin eta tresnekin egin daitezkeen bezalako Atlasa nahi eta behar eta merezi du gure herriak.

Lan honen garrantziaz jabetzeko, aski da gertakari honi ohartzea: Euskal Herria hizkuntza guztiz bereziaren jabe da, inguruko hizkuntzekin ahaidetasunik ez duen hizkuntzaren jabe, alegia. Eta bai etxe barnekoek eta bai arrotzek ere jakin nahi baldin badute hizkuntza hau zer-nolako den bere egituran, bere muinean, bere zabaleroan eta errealitateak dituen ñabarduretan, behar-beharrezkoa dugu honelako lan bat. Eta orain egiten ez badugu, agian bihar beranduegi izanen da.

Bai, beranduegi, zeren gaurko komunikabide eta hartu-eman ugariekin, tokian tokiko hizkerak nahasteko eta berezitasun asko eta asko galtzeko zorian baitaude. Esate baterako, ni bizi naizen Arantzazuko auzoan garbi ikusten da hau. Oñati aldeko euskara bizkaitartzat jotzen da, baina berezitasun asko ditu. Gaur, ordea, berezitasun horiek galduaz doaz, edo erdararen edo gipuzkeraren edo euskara batuaren faboretan. Inoiz esan du Mitxelenak Oñatiko euskarak behiala Araban egiten zenarekin duela, agian, antzik gehiena.

* * *

Ezagutze edo jakite huts-soilaz landara, ba ote du beste helbururik gure Atlas honek? Mitxelena Debako Jardunaldietan gogoratu zigunez (1), Azkuek eragindako Atlasak bazuen helburu nagusi eta jakin bat, argi eta garbi aitortua. Azkue berak hitz hauekin adierazi zuen: "Erizkizundi irukoitza. Euskaltzaindiak bere erabakiak errotsuago izan ditezen erriari aurkezturiko irutzuk erizkizun".

Beraz, garbi dago. Batasunerako hartu behar ziren erabakiak ongi oinarrituak egon zitezten, egiten zen Erizkizundi hura. Azkueren deskargutan esan behar da hark ez ziola behin ere Atlas izena eman bere Erizkizundiari. Berak inkesta bat egin nahi zuen, xede jakin batekin pentsatua. Datu fidagarriak bildu nahi zituen, alegia, gero batasunerako erabakiak hartzen zirenean, handik moldatuko zen euskara standard hori herriko hizkera bizitik ahalik eta hurbilen egon zedin.

Zernahi gizaz, esan behar dugu orain Euskaltzaindiak egin nahi duen Atlasak ez duela horrelako ez bestelako helbururik. Euskararen errealtatea ezagutu, den bezalakoxea atxeman eta jaso, ahalik eta zehazkienean: besterik ez, hori da gure xedea. Jakina, horrek ez du esan nahi gure bilakuntzen ondorioak, gero, bai batasunerako, eta bai gutien uste diren beste alor edo zereginetarako ere ez direla baliagarri izango. Bai, izango dira, noski. Baina guk, daueneko, ezagutze huts-soila dugu xede eta helburu.

Langintza hau, bestalde, zaila da, ez da nolanahe egitekoa; ongi egingo baldin bada —eta bestela, ez egitea hobe—, prestakuntza luze eta arduratsua eskatzen du. Eta zinez, nahiko luzea izan da orain arte Euskaltzaindiak eskeini dion prestaeragaraia. Boskarren Jardunaldiak deitzen ditugu oraingo hauek. Horrek esan nahi du beste lau egin izan direla aurretik. Lehenbizikoak Deban egin ziren 1981ean (2). Bigarrenak Donaisti-Ibarren 1982an (3). Hirugarrenak Markina-Xemeinen 1983an (4). Eta laugarrenak Uztaritzen 1984ean.

Lan korapilotsu eta aitzingibel askotakoa da Atlasarena. Ongi prestatuko bazen, korapilo asko askatu eta hari-mutur asko lotu beharra zegoen. Baina alderdi denak edo gehienak lau Jardunaldiotan aztertu eta eztabaidatu dira. Orain boskarren Jardunaldiei ematen diegu hasiera. Eta nik uste dut oraingo hauekin bukatuko dela prestakuntza-garaia deitu dugun hau.

Gure kasuan, euskararen kasuan esan nahi dut, Atlas ganorazko eta behar bezalako bat egin nahi bada, garrantzi handieneko puntua Galdekizunarena da —nik uste, eta besteak beste—. Aukerako Galdekizuna, ongi pentsatua eta alde aurretik egin edukitzea, alegia. Honen arrazoia garbi dago: euskara mintzaira bat gutziz berezia izanik, beste hizkuntzetarako egin diren Galdekizunak askotan ez digute balio. Erantzunetan euskararen funtsa edo egitura berezi hori agertuko baldin bada, galderak ere erantzun horiek sortarazteko egokiak behar dute izan; hots, euskararen egitura kontutan hartuz asmatutako galderak.

Aste honen hasieran egona da Gotzon Aurrekoetxea Arantzazun enekin eta Atlasa prestatzen ari den batzordeñoari buruz berriak ekarri zizkidan, beren artean egindako bileren agiriak, eta abar. Berak esan zidanez, Galdekizuna honela dago sail-

(1) "Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria", *Euskera* (1981), 873.

(2) "Euskaltzaindiaren I Dialektologi Ikastaroa", *Euskera* (1981), 917.

(3) "Dialektologiako Jardunaldiak Donaisti-Ibarren", *Euskera* (1982), 677.

(4) "Dialektologia barne Jardunaldiak", *Euskera* (1984), 399.

katua: Fonetika-Fonologiari buruz 57 galdera. Izenen Morfologiari buruz 862 galdera. Aditzen Morfologiari buruz 294 galdera. Zenbait arazo morfosintaktikori buruz 41 galdera. Guztira 3.567 galdera amankomunak. Ba omen dira, horietaz landara, beste 230 espeziifikoak deitzen dituztenak.

Hau Galdekizunari buruz. Beste arazo bat, axola handikoa berau ere, da, nik uste, euskararen eremuan inkestak egiteko zein puntu edo toki behar diren hautatu. Hizkera bereziak dituzten bazterrak, ene ustez, aparteko modu batean kontutan hartzekoak dira. Ni ez naiz inor hori erabakitzeke, baina gorago esan dudan arrazoiagatik, agian Oñati aldea ez da baztertu behar. Eta hura bezala, egongo dira beste batzuk, noski.

Beste puntu bat da traskribaketa egiteko sistema batbera benok erabiltzea.

Eta, azkenik, inkestatzaileak behar diren bezalakoak edukitzea. Behar den trebetasun eta jakintzaz hornituak, alegia.

Baina guzti hori zorionean badugu jadanik.

Muga hontaraino heltzeko prestakuntza luze eta zaila behar izan da: egon dira tirabirak, atzera-aurrerak, eritzien elkar aurkezteak, beste hizkuntzen Atlasetarik ere neurri bateko ikasbide eta jarraibide hartzea, euskararen barneko funtsa eta berezitasunak non diren jakiteko azterketak, etab. Bidea luze izan da eta aldapatsu, baina noizbait gainditu dira oztopo denak edo gehienak.

Lehen esan dudanez, Boskarren Jardunaldiei ematen diegu gaur hasiera.

Jardunaldi hauetan, batzordeak prestatutako Galdekizuna aurkezten zaigu, guk azter dezagun. Arestian esan dut zein axola handikoa den Galdekizuna Atlas on bat, eta bereziki euskararen Atlas on bat, egiteko. Badakit pertsona trebe eta jakintsu direnak ibili direla tartean. Hala ere, Jardunaldi hauetan Galdekizun hori aztertu behar dugu. Nik uste dut aztertu ezezik, onartu ere egingo dela, beharbada ohar batzuekin. Eta azkenik, egon daitezkeen oharrek kontutan hartu ondoren, Otsaileko batzarrean birretsia emango litzaioke Galdekizunari. Ikusten duzue, bada, gaur eta bihar egingo ditugun bilerokin urrats handi bat emango dela.

* * *

Bukatzeko, Mitxelenak Deban esan zituen hitz batzuk honera aldatuko ditut:

“Janzkera eta orrazkeretan ez ezik, gure sail honetan ere bolarak izaten dira. Badirudi, gainera, eta hau da okerrena, ez direla hizkuntz-atlasak, ezta norberaren hizkuntzarenak direnean ere, inoiz izan ziren bezain tentagarri gazte jendearentzat. Lanbide horrek ez du, bada, langilea multzoka eta samaldaka erakarriko. Uste dut, halaz guztiz, eta espero dut ez diogula gurean deiari entzungor egingo. Euskarari, eta euskarari ez ezik baita euskaldunen eta Euskal herriaren izen onari ere, horrenbeste zor diogula esango nuke. Gu bakarrik baikara inguru hauetan biluzgorri eta lotsagarri gelditzen garenak sail horretan. Eta lotsaizunik ez balego ere, gogoan eduki behar genuke zenbat aurreraziko lukeen obra horrek hizkuntzaren ezaguera, burutan aterako bagenu inoiz edo behin. Eta orain da garaia, geroxeago igarora izango duguna, non zer eta nola esaten den ongi erabakirik uzteko. Halabiz” (5).

(5) Cf. **Euskera** (1981), 881.

Mitxelenak esan digunez, lan hau egungo gazteentzat hain tentagarri ez bada ere, duen axolagatik eta etorkizunerako ekarriko dituen ondorioengatik gogoz eta gartsuki hartzeko modukoa dela uste dut. Inkestatzaile multzoa egotea ere beharbada ez da on eta ez desiragarri. Lana aguroago egingo litzateke, bai, baina kalitate eta batasunaren kaltetan.

Dena den, lanean hasteko prest zaudeten inkestatzaileei eta agian oraindik etorriko diren berriei, eta orain arteko prestaera neketsua burutzen lagundu duten guztiei, *Eskerrik asko!* Euskaltzaindiaren izenean.